



## **023 KONTRATAZIO-PROZEDURA**

### **GONBIDAPEN-GUTUNA:**

**Dokumentu zientifikoaren itzulpen-, berrikuspen- eta balidazio-zerbitzua  
azpikontratatzeko eskaintzen eskaera – Ebaluaziorako datuak**

**ES > EUS**

#### **1. Erakunde eskatzailearen datuak**

**Izena:** ASOCIACIÓN PARA LA GENERACIÓN Y GESTIÓN DE DATOS LINGÜÍSTICOS PARA LAS TECNOLOGÍAS DIGITALES DEL EUSKERA - **EUSKORPORA** - EUSKARAREN TEKNOLOGIA DIGITALETARAKO HIZKUNTZA-DATUAK SORTU ETA KUDEATZEKO ELKARTEA

**Proiektua: Euskorpus.** Proiektu honek honako dirulaguntza hau jaso du: “ACUERDO DE CONCESIÓN DE SUBVENCIÓN DIRECTA A LA ASOCIACIÓN EUSKORPORA PARA LA PUESTA EN MARCHA DE INICIATIVAS EN EL ÁMBITO DE LAS TECNOLOGÍAS DEL LENGUAJE EN EUSKERA, EN EL MARCO DEL PROYECTO EUSKORPUS” 2025eko uztailaren 22an.

**Helbidea:** Mikeletegi Pasealekua 65, 20009 Donostia-San Sebastián, Gipuzkoa

**Harremanetarako pertsona:** Victoria Arranz

**Posta elektronikoa:** info@euskorpora.eus

**Telefonoa:** 611 02 81 72 / 943 233 898

**Data:** 2026/05/11

#### **2. Kontratuaren xedea**

Euskorporak gaztelaniazko eduki zientifikoak euskarara eskuz itzultzeko baita horiek berrikusi eta baliozkotzeko zerbitzua azpikontratatzeko eskaintzak eskatzen ditu. Itzulpenak adituek egin beharko dituzte.

Adituek egindako lan hori euskarazko kalitatezko datu linguistikoak lortzeko erabiliko da. Horrela, Euskararen Corpus Digitala aberastu egingo da eta, aldi berean, itzulpen automatikoko teknologiak ebaluatu eta hobetzeko balio duten eduki paraleloak (datu elebidunak) sortuko dira.

### 3. Lanaren banaketa

Lana sortatan banatu da, eta eremu tematiko espezifikoaren arabera egituratu dira. Horretarako, arloa, erregistroa eta terminologia ezagutu behar dira, batez ere haien oinarri zientifikoa kontuan hartuta. Nolanahi ere, konplexutasun tekniko handiko zeregina da.

Domeinua / arloa	Hitz kopurua [x2]	Gehienek prezioa (BEZ-a kanpo)
Kultura eta antropologia	126.599	37.979,70€
Historia eta arkeologia	145.853	43.755,90€

Espezializatutako enpresek sorta bati, batzuei edo guztiei buruzko eskaintzak aurkez ditzakete. Era berean, 2026ko ekitaldian zehar argitaratuko diren sortei ere erantzun ahal izango diete.

Aurrekoa gorabehera, enpresa bakoitzeko adjudikazioaren gehieneko muga 500.000 eurokoa izango da (BEZik gabe) 2026ko ekitaldian. Zenbateko hori enpresa bakoitzak itzulpen-lan sorta bat edo gehiago esleitzearen ondorioz jaso dezakeen gehieneko zenbatekoa izango da.

Hala ere, muga hori ez da aplikatuko kontratazio-prozedura amaitu ondoren lan-bolumen osoa bere gain hartzeko gaitasun nahikoa duen enpresa bakarra geratzen denean. Egoera hori gerta daiteke prozedurara enpresa bakarra aurkeztu delako edota, bat baino gehiago aurkeztu arren, gainerakoak baztertu direlako baldintza teknikoak ez betetzeagatik. Kasu horietan, muga hori gainditu ahal izango da, baldin eta enpresa esleipendunak egiaztatzen badu ezarritako mugaz gaindiko lan-bolumena behar bezala gauzatzeko beharrezko bitarteko eta baliabideak dituela.

#### 4. Lanaren irismena

Hornitzaile esleipendunak zeregin hauek bete beharko ditu, entrega-epeak zorrotz errespetatuz:

- Kalitate handiko bi itzulpen, erreferentziazko datu gisa erabiliko direnak.
  - Bi itzulpenak talde desberdinek egin beharko dituzte.
  - Itzulpenak egin dituztenak ez diren beste aditu batzuek berrikusi beharko dituzte testuak: etapa honen helburua itzulitako edukien kalitate gorena bermatzea da, hala eskatzen baitute Euskararen Corpus Digitalak zein teknologia garatzeko eta ebaluatzeko prozesuek.
  - Itzulpen- eta berrikuspen-lanek Euskorporak diseinatutako itzulpen-gida bati jarraitu beharko diote, itzulitako edukien egokitasuna bermatzeko. Gida hau hautagaiaren eskura jarriko da, proposamen teknikoa prestatzean itzulpen-proba bat egin dezan.
- Esleipendunak Euskorporarekin adostutako formatuan entregatu beharko ditu materialak (Euskorporak iturri-segmentuekin emandako Exceleko artxiboak, iturriekin lerrokatuta itzuli beharko direnak).
- Era berean, esleipendunak barne-lanaren kalitate-kontrola egin beharko du, taldearen jarraipena eta banakako errefortzua eginez astero, beharren arabera. Edozein arazo edota premiaren berri berehala emango zaio Euskorporari.
- Euskorporak enpresa esleipendunak egindako lanaren jarraipena egingo du astero, zerbitzuaren kalitatea bermatzeko eta emaitzak baliozkotzeko.
- Euskorporak egingo duen jarraipena asteko lan-emaitzak balioztatzean datza, lanaren martxa egokia bermatzeko. Euskorporak balioztatzeen emaitzak azkar bidaliko ditu hurrengo bidalketak egin baino lehen, itzulpen-taldeek oharrak edo zuzenketak txertatu ahal ditzaten, beharrezkoa izanez gero. Ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten lanak baztertu ahal izango dira, eta enpresa esleipendunak berriro egin beharko ditu. Baztertutako lanak osorik zuzendu beharko dira.

- Entregen egutegia eta entregen zenbateko progresiboak honako hauek izango dira:

- % 10: ekainaren 15a.
- % 20: ekainaren 22a.
- % 40: ekainaren 29a.
- % 60: uztailaren 6a.
- % 80: uztailaren 13a.
- % 100: uztailaren 20a.

- Euskorporak bere kalitate-irizpideak helaraziko dizkio enpresa esleipendunari. Irizpide horiek egindako itzulpenen laginen berrikuspenean eta aurkitutako akatsen azterketan oinarrituko dira. Akats horiek honela sailkatuko dira: akats kritikoak (adibidez, akats lexikoak, sintaktikoak, esanahian eragina dutenak...) eta akats ez-kritikoak edo txikiak (puntuazioa oker erabiltzea, letra larriak...). Itzulpenetan onartutako errore-indizea % 1koa izango da.

## **5. Lana burutzeko epea**

Zerbitzuaren aurreikusitako hasiera-data: 2026/05/26

Amaiera-data estimatua: 2026/07/26

## **6. Hornitzailearen baldintzak eta eskaintzaren edukia**

Hornitzaile hautagaiek honako gaitasun eta baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Ama-hizkuntza edo maila baliokidea duten langileak, zereginaren xede-hizkuntzan (euskara).
- Hizkuntza-gaitasun handia (justifikagarria) duten langileak edukien iturri-hizkuntzan (gaztelania).
- Zereginari lotutako diziplinetan kualifikatutako langileak izatea (hala nola Itzulpengintzan eta Interpretazioan edo antzeko arloetan graduatuak).
- Itzulpen-talde bakoitza itzultzaile batek eta zuzentzaile kualifikatu batek osatuko dute (aurreko puntuetan zehaztutako eskakizunen arabera). Taldekide bakoitza behar bezala identifikatuta egon beharko da (izen-abizenekin).

- Proiektuan parte hartzen duten langile guztien curriculum vitaeak aurkeztu beharko dira, haien gaitasuna eta esperientzia zehaztuta. Proposamena indartzeko, informazio osagarria erantsi daiteke (adibidez, eremu espezifikotan duten esperientzia).
- Lote bat itzulpen-talde batek baino gehiagok egin dezake, baina talde horiek ez dira aldatuko proiektuak iraun bitartean. Aldaketak itzulpen-kalitatean arazoak daudenean bakarrik onartuko dira, eta betiere Euskorporari jakinarazi beharko zaizkio.
- Koordinatzaile bat izendatuko da proiektuaren jarraipen egokia ziurtatzeko eta Euskorporarekin batera aurrerapenak ebaluatzeko.
- Euskorporarekin edo Euskorpus proiektuarekin inolako interes-gatazkarik ez izatea.
- Positiboki baloratuko da hizkuntza-teknologiak garatzera bideratutako datu linguistikoak sortzen esperientzia egiaztatua izatea; hala ere, esperientzia hori ez izatea ez da, inola ere, hautagaia baztertzeko arrazoia izango.

Beraz, aurkeztutako proposamenek honako dokumentu hauek jaso beharko dituzte:

•**Proposamen teknikoa:** Proposamenak lan-plan argi bat jaso beharko du, faseak, kronograma eta esleitutako baliabideak zehaztuz, bai eta zereginak behar bezala gauzatzen direla bermatzeko berrikuspen- eta kalitate-kontrolerako sistema bat ere.

Halaber, proiektuan parte hartuko duten kideen profilak, curriculum eta egiaztatu daitekeen esperientzia jasoko dira.

Era berean, kontratazio-prozedura honetan parte hartzen duten enpresa guztiak gonbidatzen ditugu proba tekniko labur bat egitera. Probaren emaitzak proposamen teknikoarekin batera aurkeztu ahal izango dira, Euskorporak balora ditzan. Eskaintzarekin batera emaitza horiek aurkezten ez badira, Kontratazio Mahaiak enpresak aurreko prozeduretan antzeko zerbitzuetarako (**domeinu edo arlo berberak**) aurkeztutako proba hartuko du kontuan.

•**Proposamen ekonomikoa:** Itzulitako eta berrikusitako edukiaren hitz bakoitzeko tarifa zehaztu beharko da. Proposamen ekonomikoa baloratzerakoan, zehaztutako tarifa baino ez da kontuan hartuko.

Ez da fakturazio-baldintzarik jasoko. Hori horrela, Euskorporak ez du, inola ere, lana hasi aurretik fakturatzeko aukerarik onartuko.

**Epea:** eskaintzak aurkezteko azken eguna 2026/05/21 da, 23:59etan.

Proposamenak posta elektronikoz bidali behar dira [ofertas@euskorpora.eus](mailto:ofertas@euskorpora.eus) helbidera, gaian "Euskorpora Itzulpen Zerbitzuaren eskaintza" jarrita.

## 7. Eskaintzaren balorazio-irizpideak

Eskaintzak baloratzeko, 10 puntu emango dira guztira: 5 puntu proposamen teknikorako eta 5 puntu proposamen ekonomikorako.

Eskaintzek gutxieneko baldintza teknikoak betetzen dituztela egiaztatu ondoren, ebaluazio teknikoa egingo da, eta, ondoren, balorazio ekonomikoa. Proposamen teknikoari esleitutako 5 puntuetatik 3 puntu itzulpen-probaren (1,5 puntu) eta Euskorporarako alde aurretik egindako lanen (1,5 puntu) baterako balorazioari dagozkio. Aldez aurretik itzulpen-lanik egin ez badu Euskorporarentzat, atal honen balorazioa probaren puntuazioan soilik oinarrituko da. Zehazki, honela baloratuko da:

- Proba entregatu bada:
  - Euskorporarekin lan egin bada: Proba eta esperientzia baloratuko dira.
  - Euskorporarekin lan egin ez bada: Proba bakarrik hartuko da kontuan.
- Proba entregatu ez bada (baina aurreko prozeduretan bai):
  - Euskorporarekin lan egin bada: Aurreko probaren nota eta esperientzia baloratuko dira.
  - Euskorporarekin lan egin ez bada: Aurreko probaren nota soilik hartuko da kontuan.

- Proba entregatu ez bada (eta aurretik ere egin ez badu):
  - Euskorporarekin lan egin bada: Euskorporarekin izandako esperientzia soilik baloratuko da.
  - Euskorporarekin lan egin ez bada: Ez dago baloratzeko elementurik.

Gainerako 2 puntuak proposamen teknikoaren edukiaren arabera emango dira. Positiboki baloratuko da emandako informazioaren xehetasun- eta zehaztasun-maila, betiere enpresak emaitza fidagarriak eta kalitatezkoak ziurtatzeko duen gaitasuna islatzen badu.

Proposamen ekonomikoari dagokionez, eskaintza merkeenak lortuko du puntuazio gorena. Halere, Euskorporak eskaintza anormalki baxuak baztertu egingo ditu (Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 149. artikulua), horiek zalantzan jartzen baitute kontratua betetzeko bideragarritasuna. Itzulitako eta berrikusitako hitzeko 0,08 eurotik beherako tarifa eskaintza anormalki baxutzat hartu ahal izango da.

Esleipendun izateko, enpresak gutxienez 2,5 puntu lortu beharko ditu proposamen bakoitzean (teknikoan eta ekonomikoan).

Guztizko puntuazioan berdinketa gertatuz gero, eskaintza ekonomiko onena gailenduko da, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legeari eta baliabide publikoen efizientzia-printzipioari jarraiki.

## **8. Esleipena**

Esleipena eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunean ebatziko da, aurretik ezarritako irizpide ekonomiko zein teknikoetan oinarrituta.

Enpresa bati bere gauzatze-ahalmena baino lote gehiago esleitzen bazaizkio, horietako bati edo batzuei uko egin ahal izango die. Uko egite hori idatziz jakinarazi beharko da, esleipena jakinarazi eta gehienez ere 24 orduko epean. Uko egindako lotea edo loteak balorazio-zerrendan puntuazio altuena duen hurrengo enpresari esleituko zaizkio. Era berean, enpresa horrek 24 orduko epea izango du, dagokion jakinarazpenetik zenbatzen hasita, uko egiteko aukera baliatzeko, hala badagokio, eta horrela hurrenez hurren.



Hori horrela, enpresa esleipendunak 3 egun naturaleko epean formalizatu beharko du kontratua, ebazpena jakinarazi ondoren zenbatzen hasita. Kontratuarekin batera, esleipendunak Interes-Gatazkarik Ezaren Adierazpena sinatuko du.



## PROCEDIMIENTO DE CONTRATACIÓN N.º 023

### CARTA DE INVITACIÓN:

**Solicitud de ofertas para la subcontratación del servicio de traducción, revisión y validación de documentos científicos – Datos para evaluación**

**ES > EUS**

#### 1. Datos de la entidad solicitante

**Nombre:** ASOCIACIÓN PARA LA GENERACIÓN Y GESTIÓN DE DATOS LINGÜÍSTICOS PARA LAS TECNOLOGÍAS DIGITALES DEL EUSKERA - **EUSKORPORA** - EUSKARAREN TEKNOLOGIA DIGITALETARAKO HIZKUNTZA-DATUAK SORTU ETA KUDEATZEKO ELKARTEA

**Proyecto asociado:** **Euskorpus**. Proyecto subvencionado por “ACUERDO DE CONCESIÓN DE SUBVENCIÓN DIRECTA A LA ASOCIACIÓN EUSKORPORA PARA LA PUESTA EN MARCHA DE INICIATIVAS EN EL ÁMBITO DE LAS TECNOLOGÍAS DEL LENGUAJE EN EUSKERA, EN EL MARCO DEL PROYECTO EUSKORPUS”, en fecha 22 de julio de 2025.

**Dirección:** Mikeletegi Pasealekua 65, 20009 Donostia-San Sebastián, Gipuzkoa

**Persona de contacto:** Victoria Arranz

**Correo electrónico:** info@euskorpora.eus

**Teléfono:** 611 02 81 72 / 943 233 898

**Fecha:** 11/05/2026

#### 2. Objeto del contrato

Euskorpora solicita ofertas para la subcontratación del servicio de traducción manual al euskera de contenidos científicos en castellano y su revisión y validación para la creación de grandes cantidades de datos lingüísticos de alta calidad en euskera que:

- enriquezcan el Corpus Digital del Euskera y que

- permitan la creación de contenidos paralelos (datos bilingües) que se puedan aplicar para la evaluación y mejora de tecnologías de traducción automática.
- Estas traducciones deben efectuarse por humanos expertos.

### 3. División del trabajo

El trabajo se ha dividido en lotes, estructurados por dominios temáticos específicos que requieren un conocimiento del ámbito, su registro y su terminología, sobre todo teniendo en cuenta la base científica de los mismos. En todo caso, se trata de una tarea de elevada complejidad técnica.

Dominio / ámbito	Núm. de palabras (x2)	Precio máximo (sin IVA)
Estudios de cultura y antropología	126.599	37.979,70€
Historia y arqueología	145.853	43.755,90€

Las empresas especializadas podrán presentar oferta respecto de uno, varios o la totalidad de los lotes contemplados en la presente solicitud, así como de los que eventualmente se publiquen a lo largo del ejercicio 2026.

No obstante lo anterior, se establece un límite máximo de adjudicación por empresa, consistente en un importe acumulado de 500.000 euros, sin IVA. Este importe constituye la cuantía máxima que podrá percibir cada empresa como resultado de la adjudicación de uno o varios lotes de trabajos de traducción a lo largo del ejercicio 2026.

Sin embargo, dicho límite no será de aplicación en aquellos casos en los que, una vez finalizado el procedimiento de contratación, únicamente quede una empresa con capacidad suficiente para asumir el volumen de trabajo requerido. Esta situación podrá darse bien porque únicamente se haya presentado una empresa al procedimiento, o bien porque, habiéndose presentado varias, las demás hayan sido excluidas por no cumplir los requisitos técnicos exigidos. En tales supuestos, siempre que la empresa adjudicataria acredite disponer de los medios y recursos necesarios para ejecutar de manera adecuada un volumen de trabajo superior al límite establecido, podrá superarse dicho límite.

#### **4. Alcance del trabajo**

- La tarea de traducción implica lo siguiente:
  - Dos traducciones que servirán de datos de referencia y que deberán ser de muy alta calidad.
  - Las dos traducciones deberán ser realizadas por equipos diferentes.
  - Revisión de las traducciones efectuadas por expertos diferentes a los traductores: esta etapa está destinada a garantizar la alta calidad de los contenidos traducidos, calidad exigida tanto para la constitución del Corpus Digital del Euskera como para la aplicación de los datos al desarrollo y evaluación de tecnología.
  - Las tareas de traducción y de revisión deberán seguir una guía de traducción diseñada por Euskorpora para garantizar la adecuación de los contenidos traducidos. Esta guía será proporcionada a la empresa adjudicataria para efectuar una prueba de traducción durante la preparación de la propuesta técnica.
  
- La empresa adjudicataria deberá entregar los materiales en el formato acordado con Euskorpora (archivos de Excel proporcionados por Euskorpora con los segmentos fuentes que deberán ser traducidos de manera alineada con sus fuentes).
  
- Asimismo, la empresa adjudicataria deberá realizar un control de calidad del trabajo interno con seguimiento y refuerzo individual del equipo semanalmente según necesidades. Cualquier problema y/o necesidad se pondrá en conocimiento de Euskorpora inmediatamente.
  
- De igual forma, Euskorpora realizará un seguimiento semanal del trabajo desarrollado por la empresa adjudicataria con el fin de garantizar la calidad del servicio y validar los resultados.
  
- El seguimiento efectuado por Euskorpora consistirá en la validación de las entregas semanales para garantizar el avance adecuado del trabajo. Euskorpora enviará el resultado de sus validaciones rápidamente antes de las entregas siguientes para permitir a los equipos de traducción incorporar los comentarios/correcciones, si fuera necesario. Aquellos entregables que no cumplan con los requisitos establecidos podrán ser rechazados, debiendo ser ejecutados de nuevo por la empresa adjudicataria. Las entregas rechazadas deberán ser corregidas en su totalidad.

- El calendario de entregas y cantidades progresivas en estas entregas será el siguiente:

- 10 %: 15 de junio
- 20 %: 22 de junio
- 40 %: 29 de junio
- 60 %: 6 de julio
- 80 %: 13 de julio
- 100 %: 20 de julio

- Euskorpora facilitará sus criterios de calidad a la empresa adjudicataria. Estos se basarán en la revisión de muestras de las traducciones efectuadas y en un análisis de los errores encontrados, que se clasificarán en errores críticos (por ejemplo, errores léxicos, sintácticos, con impacto en el significado, ...) y errores no críticos o menores (uso incorrecto de puntuación, mayúsculas, ...). Se aceptará un 1% de errores en las traducciones.

- El incumplimiento reiterado de dichos estándares de calidad podrá dar lugar a penalizaciones económicas o a la resolución del contrato de servicios.

## **5. Plazo de entrega del trabajo**

Fecha de inicio prevista: 26/05/2026

Fecha de finalización estimada: 26/07/2026

## **6. Requisitos de la empresa adjudicataria y contenido de la propuesta**

La empresa adjudicataria deberá acreditar:

-Personal de lengua materna o equivalente en la lengua destino de la tarea (euskera).

-Personal con alta competencia lingüística (justificable) en la lengua fuente de los contenidos (castellano).

-Personal cualificado en disciplinas afines a la tarea (como Traducción e Interpretación u otras áreas relacionadas).



- Cada equipo de traducción debe estar compuesto de un traductor y de un revisor cualificados (ver exigencias de personal en los puntos precedentes) e identificados (con los nombres de los componentes de cada equipo).
- Documentación sobre el personal implicado en el proyecto: currículums que detallen su competencia y experiencia. Se puede adjuntar cualquier otro documento o información que refuerce la propuesta (como experiencia en ciertos ámbitos/dominios).
- La ejecución de un lote puede llevarse a cabo por varios equipos de traducción cuya constitución no cambiará durante la ejecución del proyecto, salvo si se incurre en problemas de calidad de las traducciones. En ese caso, se notificarán los cambios a Euskorpora.
- Disponer de un coordinador con el fin de asegurar un seguimiento óptimo del proyecto y con el que evaluar el avance del mismo con Euskorpora.
- No incurrir en ningún conflicto de intereses con Euskorpora ni con el proyecto Euskorpus.
- Se valorará positivamente la experiencia previa acreditable en proyectos de traducción para la generación de datos lingüísticos orientados al desarrollo de tecnologías del lenguaje, si bien su ausencia no será, en ningún caso, motivo de exclusión.

Por lo tanto, las ofertas presentadas deberán incluir la siguiente documentación:

•**Propuesta técnica:** La propuesta deberá incluir un plan de trabajo detallado que especifique las fases, el cronograma y los recursos asignados, así como un sistema de revisión y control de calidad que garantice la correcta ejecución de las tareas.

Asimismo, se adjuntarán los perfiles, currículos y la experiencia acreditable de los miembros que integrarán el equipo del proyecto.

Del mismo modo, invitamos a todas las empresas participantes en este procedimiento de contratación a realizar una breve prueba técnica. Los resultados de la prueba podrán presentarse junto con la propuesta técnica para su valoración por parte de Euskorpora. En caso de no aportar dichos resultados con la oferta, la Mesa de Contratación tendrá en cuenta la prueba presentada por la empresa para servicios idénticos (mismo dominio/ámbito) en procedimientos anteriores.

•**Propuesta económica:** Se deberá especificar la tarifa por palabra de contenido traducido y revisado. En la valoración de la propuesta económica únicamente se tendrá en cuenta la tarifa indicada.

No se recogerán condiciones de facturación. Euskorpora no aceptará en ningún caso la posibilidad de facturar antes del inicio de los trabajos.

**Plazo:** el último día para la presentación de ofertas es el 21/05/2026, a las 23:59h.

Las propuestas deben enviarse por correo electrónico a: [ofertas@euskorpora.eus](mailto:ofertas@euskorpora.eus), con el asunto "Oferta Servicio Traducción Euskorpora".

## 7. Criterios de valoración de la oferta

Para la valoración de las ofertas se otorgará un total de 10 puntos, distribuidos de la siguiente manera: 5 puntos para la propuesta técnica y 5 puntos para la propuesta económica.

Tras verificar que las ofertas cumplen los requisitos técnicos mínimos, se procederá a la evaluación técnica y, posteriormente, a la valoración económica. De los 5 puntos asignados a la propuesta técnica, 3 puntos corresponden a la valoración conjunta de la prueba de traducción (1,5 puntos) y de los trabajos previos realizados para Euskorpora (1,5 puntos). De no haber realizado trabajos previos de traducción para Euskorpora, la valoración de este apartado se basará únicamente en la puntuación de la prueba.

En concreto, la valoración se realizará de la siguiente manera:

- Si se ha entregado la prueba:
  - Si se ha trabajado con Euskorpora: Se valorarán la prueba y la experiencia.
  - Si no se ha trabajado con Euskorpora: Solo se tendrá en cuenta la prueba.

- Si no se ha entregado la prueba (pero sí en procedimientos anteriores):
  - Si se ha trabajado con Euskorpora: Se valorarán la nota de la prueba anterior y la experiencia.
  - Si no se ha trabajado con Euskorpora: Solo se tendrá en cuenta la nota de la prueba anterior.
- Si no se ha entregado la prueba (y tampoco se ha realizado anteriormente):
  - Si se ha trabajado con Euskorpora: Solo se valorará la experiencia previa con Euskorpora.
  - Si no se ha trabajado con Euskorpora: No existen elementos valorables.

Los 2 puntos restantes se otorgarán en función del contenido de la propuesta técnica. Se valorará positivamente el nivel de detalle y precisión de la información aportada, siempre que refleje la capacidad de la empresa para asegurar resultados fiables y de calidad.

En cuanto a la propuesta económica, la oferta más económica obtendrá la puntuación máxima. No obstante, Euskorpora excluirá aquellas ofertas anormalmente bajas (criterio inspirado en el artículo 149 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público), por cuanto ponen en duda la viabilidad de la ejecución del contrato. Una tarifa inferior a 0,08€ por palabra traducida podrá ser considerada como oferta anormalmente baja.

Para poder resultar adjudicataria, la empresa deberá obtener una puntuación mínima de 2,5 puntos en cada uno de los apartados (técnico y económico).

En caso de empate en la puntuación total, prevalecerá la mejor oferta económica, de conformidad con la Ley 20/2023, de 21 de diciembre, Reguladora del Régimen de Subvenciones, y en atención al principio de eficiencia en el uso de los recursos públicos.

## **8. Adjudicación**

La adjudicación se resolverá el día siguiente a la finalización del plazo de presentación de ofertas, basándose en los criterios económicos y técnicos previamente establecidos.



Si a una empresa se le asignara un número de lotes superior a su capacidad de ejecución, podrá renunciar a uno o varios de ellos. Dicha renuncia deberá notificarse por escrito en el plazo máximo de 24 horas desde la notificación de la adjudicación. El lote o lotes renunciados se adjudicarán a la siguiente empresa mejor clasificada según el orden de puntuación. Esta empresa dispondrá igualmente de un plazo de 24 horas desde la correspondiente notificación para ejercer, en su caso, la opción de renuncia, y así sucesivamente.

La empresa adjudicataria deberá formalizar el contrato en un plazo de 3 días naturales tras la comunicación de la resolución. Junto con el contrato, el adjudicatario procederá a la firma de la Declaración de Ausencia de Conflicto de Intereses.